cineclub

fas

Abril/Mayo/Junio 2022 Apirila/Maiatza/ Ekaina

El mejor cine de autor en versión original

J.B.an zinemarik onena

¿Qué vemos cuando miramos al cielo?

Ilargi guztiak

Titane

Introduction

Drive My Car

Especiales

Great Freedom

Malmkrog

La isla de las mentiras

Nanuk, el esquimal

9 Fugas

Fon Cortizo

¡HAZTE SOCIO/A!

La mejor oferta cinematográfica de Bilbao
Todas las sesiones en V.O.
Conferencias sobre cine
Coloquios con directores, actores, críticos...
Acceso a la biblioteca del cineclub
Invitación a eventos cinematográficos
De lunes a viernes precio de día del espectador en los Multicines

BAZKIDE EGIN!

Bilboko zine eskaitzarik onena
Emanaldi guztiak J.B.an
Zinemari buruzko hitzaldiak
Zuzendari, aktore, kritikarekin,... solasaldiak
Zineklubaren liburutegia erabiltzeko aukera
Zine ekitaldietarako gonbidapenak
Multicines-etan astelehenetik ostiralera ikuslearen egunezko prezioan

PROGRAMA EGITARAUA

ABRIL/APIRILA

5
¿QUÉ VEMOS CUANDO MIRAMOS AL CIELO
Alexandre Koberidze

19
ILARGI GUZTIAK
Igor Legarreta
+ Harria eta Bidea, Paula Gomez - Aitane Goñi Landa

26
TITANE
Julia Ducournau
+ Homeless Home, Alberto Vazquez

MAYO/MAIATZA

3
INTRODUCTION
Hong Sang-soo
+ A Way Out, Lucas Milla

10
DRIVE MY CAR
Ryûsuke Hamaguchi

17
ESPECIALES
Olivier Nakache - Eric Toledano

24
GREAT FREEDOM
Sebastian Meise

JUNIO/EKAINA

31
MALMKROG
Cristi Puiu

7
LA ISLA DE LAS MENTIRAS
Paula Cons
+ Bilbao hiri ibiltaria, Jon Zurimendi

14
9 FUGAS
Fon Cortizo
+ Rotor, Ainara Elgoibar

21
NANUK, EL ESQUIMAL
Robert J. Flaherty

TARIFAS
SALNEURRIAK

Hiruhilabeteko emanaldi guztiak dohainik izango dira bazkide guztientzat

Fas Zineklubak liburutegi zerbitzu osotu bat eskaintzen du, entziklopedi eta milaka liburu eta aldizkariekin

Todas las proyecciones del trimestre serán gratuitas para nuestros socios

El Cineclub Fas dispone de una completa biblioteca con cientos de libros y miles de revistas de cine

*Estudiantes y parados / ikasle eta langabeziak: 38 €
**Estudiantes y parados / ikasle eta langabeziak: 3 €

PRESENTACIÓN
AURKEZPENA

'Egizu maitasuna, ez gerra'. Stop Ukrainako inbasioari. Horri buruz Toniren blog-fas (web) irakurtzea iradokitzen dut. Beraz, gure gaitzespen irmoa.

Gure lana da kultura zinematografikoa transmititzea eta, beraz, mundu osoko artisten filmak zabaltzea, bereiziz herrialde bateko herritarrak ez direla beren gobernuen erabakien erantzule.

Barkamena eskatzea ere tokatzen zaigu, Jane Campionen azken filma proiektatzeko ezintasunagatik ('zuzeneko' kontuak)

Hori esanda, 70. kurtso-fas honetan murgiltzen jarraitzen dugu gogo biziz Alexandre Koberidze (Georgia), Igor Legarreta (EH), Julia Ducournau (Fr), Hong Sang-soo (Hego Korea), R. Hamaguchi (Japonia), Nakache-Toledano (Fr), Sebastian Meise (Austria), C. Puiu (Errumania), Paula Cons (Galizia) edo Fon Cortizo (Galizia). Eta azkenik eskimal munduan murgiltzea R. J. Flaherty (USA) eta Josetxo Fdz. de Ortegaren musikaren eskutik.Bidaia zinematografikoa, zirraragarria. Ez ezazu galdu!

'Haz el amor, no la guerra'. STOP a la invasión de Ucrania. Sugiero lectura del blog-fas (web) de Toni al respecto. Nuestra rotunda condena pues.

Es nuestra labor transmitir cultura cinematográfica y difundir, por tanto, las películas de artistas de todo el mundo, diferenciando que la ciudadanía de un país no es responsable de las decisiones de sus gobiernos.

También nos toca pedir disculpas por la imposibilidad de haber proyectado el último film de Jane Campion (cosas del 'directo')

Dicho lo cual, continuamos embarcados en este 70º curso-fas con enorme entusiasmo para la viajar a las nuevas propuestas de Alexandre Koberidze (Georgia), Igor Legarreta (EH), Julia Ducournau (Fr), Hong Sang-soo (Corea Sur), R. Hamaguchi (Japón), Nakache-Toledano (Fr), Sebastian Meise (Austria), C. Puiu (Rumania), Paula Cons (Galicia) o Fon Cortizo (Galicia).Y finalmente sumergirnos en el mundo esquimal de la mano de R. J. Flaherty (USA) y la música de Josetxo Fdz. de Ortega. Un viaje, cinematográfico emocionante. ¡No te lo pierdas!

¿QUÉ VEMOS CUANDO MIRAMOS AL CIELO?

RAS VKHEDAVT, RODESAC CAS VUKUREBT?

Bikote gazte bat behin edo beste elkartuko da kasualitatez, eta azkenean taberna batean geldituko dira, baina, bertaratzen direnean, biak itxuraz aldatuta daude, eta ez dute elkar ezagutuko, madarikazio bitxi baten biktima izan balira bezala. Hortik aurrera, nahasian gertatuko dira eguneroko gauzak eta gauza misteriotsuak.

Kitaisi hiriko udako egunetan, pertsonaia gutxi batzuk jardungo dira ipuin sosegatu batean, zeinetan ikusten baita garrantzirik ez duena zein harrigarria den, eta adarkadurak eta zirkuluak sortuko dira; panoramika bat, plano xehe bat, zoom bat...; batzuetan narrazio linea desberdinak elkartuko dira muntatzearen bidez eta beste batzuetan espazioak batuko dira plano berberean.

Maitagarrien ipuin honek harritu egin zuen Berlingo 2021eko jaialdian, eta Kritikaren Nazioarteko Saria irabazi zuen. Mar de Platako zinemaldian, berriz, Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi zuen, eta Sevillakoan argazkirik onenarena.

Una joven pareja se encuentra varias veces de manera casual y acaba citándose en un bar pero, cuando acuden a la cita, ambos han cambiado su apariencia y no se reconocen, como si fueran víctimas de una extraña maldición. Tras ese arranque, se enlazan secuencias variopintas que mezclan lo cotidiano y lo misterioso.

Unos pocos personajes interactúan durante unos días de verano en la ciudad de Kitaisi en un cuento sosegado que presenta lo sorprendente de lo trivial y deriva en ramificaciones y círculos; una panorámica, un plano de detalle, un zoom...; a veces se conjugan distintas líneas narrativas mediante el montaje y otras se aúnan espacios en un mismo plano.

Un cuento de hadas que sorprendió en el Festival de Berlín-2021 y se hizo con el Premio Internacional de la Crítica, en el Festival de Mar del Plata obtuvo el Premio Especial del Jurado y en el Festival de Sevilla el Premio a la mejor fotografía.

19:45
5/4/2022

¿QUÉ VEMOS CUANDO MIRAMOS AL CIELO?

GEORGIA/ALEMANIA - 2021 - 150 m.

Dir Alexandre Koberidze
G Alexandre Koberidze
Fot Faraz Fesharaki
Int Ani Karseladze, Giorgi Bochorishvili, Oliko Barbakadze, Giorgi Ambroladze, Vakhtang Panchulidze, Irina Chelidze

ILARGI GUZTIAK

1876. urtea, karlistaldiaren amaiera. Basoan bizi den emakume misteriotsu batek neska bat askatzen du umezurztegitik. Neska zauritua dago, eta hiltzear dagoela sumatzen du, baina, egun berriarekin esnatzen denean, ikusiko du emakumeak hilezkortasunaren dohaina eman diola lagun egitearen truk. Ezin konta ahala ilargialdi pasatuko ditu bere haurtzaroan zerratuta, gizon xume batek askatu eta etxean hartzen duen arte.
Argumentuak beste batzuk dakartza gogora, baina filmak nortasun propioa du, fantasiazko fabularen irarmarka dauka euskal mitologian, paisaian eta hizkuntzan hariztatua, eta era askotako gaiak lantzen ditu, hala nola hiltzeko beldurra, seme-alaben ganako maitasuna eta anaien arteko gerra.
Haizea Carneros neskatoaren interpretazio bikaina, zeinaren irudia film osoan ageri baita.

Año 1876, el final de las guerras carlistas. Una niña es rescatada de un orfanato por una misteriosa mujer que habita en el bosque. La niña está malherida y siente estar a punto de morir pero, al despertar en un nuevo día, descubre que la mujer le ha donado la inmortalidad a cambio de su compañía. Vive infinidad de lunas encerrada en su condición de niña hasta que un hombre humilde la rescata y la acoge en su casa.
Un argumento que recuerda a otros ya conocidos pero la película tiene personalidad propia, con una impronta de fábula fantástica engarzada en la mitología vasca, en el paisaje y en la lengua, presenta temas como el miedo a morir, el amor paterno-filial, la guerra entre hermanos, etc...
Magnífica interpretación de la niña Haizea Carneros cuya imagen está presenta en toda la película.

ESPAÑA/FRANCIA - 2021 - 102 m.

Dir Igor Legarreta
G Igor Legarreta , Jon Sagalá
Fot Imanol Nabea
Int Haizea Carneros, Itziar Ituño, Zorion Eguileor, Josean Bengoetxea, Ane Biain, Lier Quesada, Elena Uriz, Miriam del Prado, Maite Sáez de Vicuña, Justi Larrinaga, Andere Garabieta, Iraia Serrano, June Larrañaga

+ Harria eta Bidea, Paula Gomez-Aitane Goñi Landa 14'. Doc.

Inv Haizea Carneros, Nitya Lopez. Paula Gomez, Aitane Goñi Landa

X. Aitzol Aramaio saioa

Aitzol Aramaio

Zoritxarraren ondorioz, Aitzol Aramaio Bengoetxea zinegile eta faseko bazkide gazteak 2011ko apirilaren 24an utzi gintuen. Pena handitik omenaldira pasa ginen (2011/05/24), eta bertan lagun izan genituen Ramon Barea, Michel Gaztambide, Kirmen Uribe, Unai Elorriaga edo Kepa Junkera, besteak beste.
2013, bi urte geroago, 60 urte bete genituen (fas zinekluba) eta Aitzol Oroimenean jaio zen.

El infortunio provocó que el cineasta y joven socio del fas Aitzol Aramaio Bengoetxea nos dejara un 24 de abril de 2011. De la gran pena pasamos al homenaje en la que nos acompañaron sus trabajos cinematográficos y amigos: Ramón Barea, Michel Gaztambide, Kirmen Uribe, Unai Elorriaga o Kepa Junkera entre otros.
2013, dos años después cumplíamos 60 (cine-

saio berezia (eta oso maitatua), saio horretan hemengo zinemagintzan jarri genuen arreta (euskal ekoizpenak), tokiko zinemagileen topagune eta eztabaidagunean. Lehen edizioan, formatu 'film laburrean', Josu Eizagirre, Gregorio Muro, Iban del Campo eta Angel Aldarondo izan ziren. Bigarrenean Gotzon Aurrekoetxea, Lander Camarero eta Josu Eizagirrerekin partekatu genuen. 2015ean (III.) Irene Bau, Lander Otaola, Daniel Cortazar, Xabier Iriondo eta Aitor Arregi hurbildu zituen. IV. edizioak Ainara Porrón, Sonia Estevez, Oskar Alegria, Ander Parody eta Luis Espinosa ekarri zituen. Formatu 'ertainean' V. edizioara heldu ginen Koldo Almandoz, David Aguilar eta Zazpi T 'erdi-ekin. VI.ean formatu 'luzean' Iratxe Mediavillarekin egin genuen, Josu Eizagirrerekin baita. Urtebete geroago, VII. edizioan Hibai Castro izango dugu lagun. Hor jarraitzen dugu urtez urte, VIII. ean (2020 pandemikoa izan zen) Iban del Campo etorri zen, "Glittering Misfit"-ekin. IX. edizioa Imanol Rayorekin eta Joanes Urkixorekin partekatu genuen. Eta horrela, 2022 honetan X.era iritsiko gara, pixkanaka-pixkanaka bidea eginez hemengo zinemarekin.

club fas) y nacía Aitzol Oroimenean, una sesión especial (y muy querida) en la que ponemos el foco en el cine de aquí (producciones vascas), punto de encuentro y debate de cineastas locales. En su primera edición, en formato 'corto', estuvieron Josu Eizagirre, Gregorio Muro, Iban del Campo y Angel Aldarondo. En la II compartimos con Gotzon Aurrekoetxea, Lander Camarero y Josu Eizagirre. 2015 (III) acercó a Irene Bau, Lander Otaola, Daniel Cortázar, Xabier Iriondo y Aitor Arregi. La IV edición nos trajo a Ainara Porrón, Sonia Estévez, Oskar Alegría, Ander Parody y Luis Espinosa. En formato 'medio' alcanzamos la V con Koldo Almandoz, David Aguilar y Zazpi T'erdi. La VI pasamos al largo con Iratxe Mediavilla, también Josu Eizagirre. Un año después, en la VII edición nos acompañó Hibai Castro. Ahí seguimos año a año, la VIII (2020 fue pandémico) y vino Iban del Campo con "Glittering Misfit". La edición IX la compartimos con Imanol Rayo y Joanes Urkixo. Y así, este 2022 llegamos a la X, poco a poco haciendo camino por el cine de aquí.

TITANE

Aurpegia ubeldua duen gazte bat aurkituko dute aireportu batean. Dioenez, Adrien Legrand du izena, eta hamar urte lehenago desagerturiko haurra da. Aitarentzat, Vincententzat, luze joan den amesgaizto baten amaiera da, eta etxera eramango du. Bestalde, eskualdean hilketa sail beldurgarri bat izan da.

Istorioaren sinopsiak ez du garrantzirik, zeren eta istorioa irudiek kontatzen baitute; inpaktu bisuala bilatzen du, ikuslea aztoratzea, bestelako esperientzia batera eramatea.

Sexua, bortizkeria, autoak, dantzak eta musika (harritzekoa ere bada, Bachen musika ere hartzen baitu); eszena traumatikoak eta higuingarriak, irudimenez tratatuak; nortasunaren inguruko istorio konplexu baten narrazioa, nobera epel utziko ez duena.

Cannesko 2021eko zinemaldian irabazitako Urrezko Palmaren bermearekin dator filma, eta hasieratik beretik txunditzen du.

Un joven con la cara magullada es descubierto en un aeropuerto. Dice llamarse Adrien Legrand, un niño que desapareció hace 10 años. Para su padre, Vincent, esto supone el final de una larga pesadilla y lo lleva a casa. Por otra parte, en la región se han sucedido una serie de horribles asesinatos.

La sinopsis de la historia no es lo importante, porque la historia la cuentan las imágenes y el efecto que provocan; se persigue el impacto visual, perturbar al espectador, llevarle a una experiencia diferente.

Sexo, violencia, coches, bailes y música, (incluso sorprende incorporando música de Bach) escenas traumáticas y repugnantes tratadas con ingenio, narración de una compleja historia sobre la identidad que no deja indiferente.

La película viene avalada por la Palma de Oro del Festival de Cannes-2021 y desconcierta desde el primer momento.

19:45
26/4/2022

TITANE

FRANCIA/BÉLGICA - 2021 - 108 m.
Dir Julia Ducournau
G Julia Ducournau
Fot Ruben Impens
Mus Jim Williams
Int Agathe Rousselle, Vincent Lindon, Garance Marillier, Myriem Akeddiou, Dominique Frot, Nathalie Boyer, Théo Hellermann, Mehdi Rahim-Silvioli, Anaïs Fabre, Lamine Cissokho

+ Homeless Home, Alberto Vázquez 15'. Ani. **(Premio FANT 2021)**

Inv Iván Miñambres (Uniko)

Kazeta
CAFE · RESTAURANTE · BAR
DESDE 1992

ALAMEDA SAN MAMÉS, 6
48010 BILBAO **TEL. 944 434 463**
KAZETA@GMAIL.COM WWW.KAZETA.BAR
RESTAURANTE KAZETA 671 938 546

The COTTON CLUB

Live Music & DJ since 1994

de martes a sábado

Alameda Gregorio de la Revilla, 25, Bilbao

HOTEL ABANDO
★★★★
ARÁNZAZU HOTELES
COLÓN DE LARREÁTEGUI, 9 · BILBAO
HOTEL COLABORADOR CON EL CINECLUB FAS

ZINEBI

IX Festival de Cortometrajes
KORTeN! FAS 2022
IX. Film Laburren Zinemaldia



2022/4/19
KORTeN! (8) **Harria eta Bidea,** Paula Gomez-Aitane Goñi Landa. 2021, 14'. Doc.

2022/4/26
KORTeN! (9) **Homeless Home,** Alberto Vazquez. 2020, 15'. Anim.

2022/5/3
KORTeN! (10) **A Way Out,** Lucas Milla. 2020, 15'. Fic.

2022/6/7
KORTeN! (11) **Bilbao hiri ibiltaria,** Jon Zurimendi. 2021, 3'. Anim.

2022/6/14
KORTeN! (12) **Rotor,** Ainara Elgoibar. 2021, 16'. Doc.

INTRODUCTION

DORAIBU MAI KÂ

Youngho aktore izan nahi duen gazte bat da, eta sentimenduak ezkutatzeko zailtasunari egin behar dio aurre. Egokitu zaion rolean emakume bati musu eman behar diola ikusita, nahiago du pauso bat atzera eman, eta bere neska-lagunarekin dituen harremanei lehentasuna eman. Amak arreta ofizioan jar dezala animatzen du, eta aitarekin, berriz, harreman hotza du.
Hala, borrokan darabiltza bokazioa, maitasunak eta gurasoenganako harremanak.
Filma hiru ataletan eta bi herrialdetan partitua dago, Hego Koreatik Alemaniara, Berlinera, hor ari baita ikasten neska-laguna.
Eta hiru kontakizunen artean, sekuentzia batzuk alde onirikorantz joango dira eta beste batzuk poetikorantz.
Pantailan gertatzen dena ez da gatazka handi bat, baizik eta egunerokoaren begirada bat; pertsonaiek elkarrekin hitz egiten dute, eta kamerak une jakinak nabarmentzen ditu.
Intentsitate apaleko emozioak.
Beha egoteko film laburra.

Youngho es un joven que quiere ser actor y que se enfrenta con su dificultad para fingir sentimientos. Ante un papel que le exige besar a una mujer, prefiere dar un paso atrás y priorizar las relaciones con su novia. Su madre le anima a centrarse en su carrera y con su padre mantiene una relación distante.
Y así se debate entre su vocación, sus amoríos y las relaciones con sus padres.
La película está dividida en tres episodios y dos países, de Corea del Sur a Alemania, Berlín donde estudia su novia.
Y entre los tres relatos, algunas secuencias derivan a lo onírico y lo poético.
Lo que sucede en pantalla no es un gran conflicto sino más bien una mirada a lo cotidiano; los personajes conversan y la cámara resalta ciertos momentos. Emociones de baja intensidad.
Una película breve para contemplar.

COREA DEL SUR - 2021 - 66 m.

Dir Hong Sang-soo
G Hong Sang-soo
Fot Hong Sang-soo
Mus Hong Sang-soo
Int Shin Seok-ho, Park Mi-so, Kim Min-hee, Kim Young-ho, Seo Young-hwa, Cho Yun-hee, Ye Ji-won, Ha Seong-guk, Gi Ju-bong

+ A way out, Lucas Milla. 2020, 15'. Fic.

Inv Lucas Milla (director)

DRIVE MY CAR

Dolualdian dela,Yusuke Kafuku aktore eta antzerki zuzendariak "Tío Vania" obra Hiroshimako jaialdian muntatzea onartzen du. Hirian barrena mugitzeko, auto bat ipintzen diote txofer batekin (Misaki); ibilbidez ibilbide, elkarrizketa intimoak izango ditu emakumearekin, eta elkarri beren bizitzako nahigabeak eta orbanak kontatuko dizkiote. Autoa intimitaterako espazio bihurtzen da.
Murakamiren kontakizun batean inspiratuta dago gidoia, nahiz eta nahiko modu askean hartua dagoen, eta bi parte dauzka. Lehena protagonistaren eta emakumearen harremanean oinarritzen da; bigarrenak, berriz, Misakirekin duen harremana erakusten du. Antzezlanaren eta entseguen kontakizunak modua ematen du trama nagusia elikatzen duten bigarren mailako pertsonaiak sartzeko.
Filmak sari asko jaso ditu, eta 2021ean lau Oscar saritarako izendatua izan zen.

En medio de un proceso de duelo, Yusuke Kafuku, actor y director de teatro, acepta montar la obra "Tío Vania" en un festival de Hiroshima.
Para el desplazamiento por la ciudad, le asignan un coche con una chófer, Misaki; a medida que se suceden los trayectos mantiene con ella conversaciones íntimas en las que comparten el dolor y las cicatrices que ha dejado en sus vidas. El coche se convierte en un espacio de intimidad.
El guión se inspira en un relato de Murakami, aunque bastante libremente, y se compone de dos partes. La primera se centra en la relación entre el protagonista y su mujer; la segunda muestra la relación con Misaki.
La integración en el relato de la obra de teatro y sus ensayos permite introducir personajes secundarios que alimentan la trama principal.

19:45
10/5/2022

JAPÓN - 2021 - 179 m.

Dir Ryûsuke Hamaguchi
G Ryûsuke Hamaguchi, Takamasa Oe
Fot Hidetoshi Shinomiya
Mus Eiko Ishibashi
Int Hidetoshi Nishijima, Tôko Miura, Reika Kirishima, Sonia Yuan, Satoko Abe, Masaki Okada, Perry Dizon, Ahn Hwitae

ESPECIALES
HORS NORMES

Egiazko gertaeren gainean egindako fikzioa. Bruno eta Malik adiskideak dira, eta urteak daramatzate autismoak jotako haurrak eta nerabeak zaintzen; proiektu berri bat abiatuko dute baliabiderik ez duten gazte baztertuei formakuntza emanez kasurik muturrekoenetan direnak zaindu ditzaten. Alde horretatik, elkarte ez oso ohiko bat sortuko dute, ezohiko pertsonez osatua.
Umorezko tarteak ditu zenbait unetan, eta ez da falta kritika soziala ere. Garrantzitsua da batik bat pertsonaien eraikuntza eta haien historia: gizartean baztertuta dauden gizakiak, batzuk autismoagatik eta beste batzuk alderdi sozioekonomikoagatik.
Filma ez da melodramatikoa, eta ez dago autoerrukiz betea; protagonistak ez dituzte aurkezten biktima gisa; aitzitik, ahotsa eta indarra ematen zaie.
Donostiako Zinemaldian Publikoaren saria jaso zuen 2019an.

Un relato de ficción sobre hechos reales. Bruno y Malik son dos amigos que llevan años dedicándose a cuidar niños y adolescentes afectados por el autismo; se embarcan en un nuevo proyecto de formar a jóvenes marginados y sin recursos para que puedan cuidar a los casos más extremos. Para ello crean una asociación poco convencional en la participan personas extraordinarias.
Emoción transitada de humor en algunos momentos, no exenta de crítica social. Sobre todo, lo que importa aquí es la construcción de los personajes y su historia; seres excluidos de la sociedad unos por el autismo y otros su posición socio-económica.
La película no cae en el melodrama ni la autocompasión; los protagonistas no se presentan como víctimas sino que se les da voz y se hacen fuertes.
Obtuvo el Premio del Público en el Festival de San Sebastián de 2019.

FRANCIA - 2019 - 108 m.

Dir Olivier Nakache, Eric Toledano
G Olivier Nakache, Eric Toledano
Fot Antoine Sanier
Mus Grandbrothers
Int Vincent Cassel, Reda Kateb, Aloïse Sauvage, Hélène Vincent, Bryan Mialoundama, Alban Ivanov, Benjamin Lesieur, Marco Locatelli, Catherine Mouchet, Frédéric Pierrot, Suliane Brahim

Inv CAOSTICA

Sesión en colaboración con Caostica e Inst. Francés / Caostica eta Inst. Fr.-ekin elkarlanean saioa

GREAT FREEDOM
GROSSE FREIHEIT

Hansen egiazko historia hiru unetan (1945, 1957 eta 1969), homosexuala izateagatik jasaten dituen kartzelaldiak eta Viktorrekin duen harremana, zeina preso dagoen hiltzaile bat baita. Filmak, beraz, gay jendearen gaineko errepresioa lantzen du gerraondoko Alemanian, baita kartzelaldiak espetxean daudenei nola eragiten dien ere.

Bi gizonen arteko harremana konplexua da. Viktor drogatan eroria dago, eta Hansen laguntza hartzen du nahiz eta hasieran uzkur agertu; hala, elkarrengana hurbiltzen dira oso desberdinak diren bi gizon. Denborarekin, intimitate harreman berezia sortuko zaie.

Bi protagonisten intepretazio bikainak. Saria jaso zuen Cannesko 2021eko zinemaldian (Un Certain Regard) eta filmik onenaren eta aktorerik onenaren saria Sevillako jaialdian.

La historia real de Hans en tres momentos (1945, 1957 y 1969) distintos periodos de encarcelamiento por prácticas homosexuales y también de su relación con Viktor, un asesino convicto. La película, por tanto, trata de la represión sobre los gays en la Alemania de la posguerra y también de los efectos de la prisión en las personas sometidas a ella.

La relación entre los dos hombres se presenta compleja; Viktor está enganchado a las drogas, se deja ayudar por Hans a pesar de su repulsión inicial y se produce un tímido acercamiento entre dos hombres muy diferentes. Con el paso del tiempo crece entre ellos una especial relación de intimidad. Magníficas interpretaciones de los dos protagonistas.

Recibió el Premio del Jurado en el Festival de Cannes 2021 (Un Certain Regard) y Mejor película y mejor actor en el Festival de Sevilla.

19:45
24/5/2022

GREAT FREEDOM

AUSTRIA/ALEMANIA - 2021 - 116 m.

Dir Sebastian Meise
G Sebastian Meise, Thomas Reider
Fot Crystel Fournier
Mus Nils Petter Molvær, Peter Brötzmann
Int Franz Rogowski, Georg Friedrich, Anton von Lucke, Joachim Schoenfeld, Thomas Prenn, Fabian Stumm, Ulrich Faßnacht

MALMKROG

Etxe eguzkitsu eta armarridun batean, goi klaseko lagun talde bat elkartzen da Nikolaik gonbidatuta, lurjabe boteretsu bat bera munduan barrena asko ibilitakoa. Malmkrogeko etxean, Transilvanian, urtezaharrak pasatuko dituzte, otordu ederrak eta joko sozialak eginez; moralaren, politikaren, heriotzaren, gaizkiaren eta abarren gaineko eztabaida sakonak izango dituzte. Hala, orduak pasatuko dira, eta tentsioak handituko. Elkarrizketa mardulak, saiakera literariotik hurbilago diren gai eta eztabaidak. Baina filmak badakartza idatzizko testuaren gainetik dauden gauzak. Zerbitzarien isiltasuna aristokraten elkarrizketa bezain handia da; frantsesez dihardute elkarrekin, eta alemanez zerbitzariekin mintzatzean; tentsioa handitzen doa, eta iraultza piztuko dela igartzen zaio. Horretaz gainera, nabarmentzekoak da nolako araztasunarekin darabiltzan soinuak, aldagelak, objektuak, musika partitura eta irudien enkoadratzeak.

Una casa solariega y blasonada en la que se reúnen un grupo de personas de la alta sociedad invitados por Nikolái, un poderoso terrateniente y hombre de mundo. En la mansión de Malmkrog en Transilvania, pasan las fiestas de fin de año y entre copiosas comidas y juegos de sociedad, mantienen profundas discusiones sobre la moral, la política, la muerte, el mal... Las horas pasan y las tensiones crecen. Diálogos densos, temas y discursos más propios de un ensayo literario.

Pero hay cosas que la película aporta por encima del texto escrito. El silencio de la servidumbre es tan intenso como las conversaciones de los aristócratas que se desarrollan en francés y pasan al alemán cuando se dirigen a los sirvientes; se acumula la tensión y se anuncia el estallido de la revolución.

Además destacan el uso depurado de los ruidos, el vestuario, los objetos, la partitura sonora, los encuadres y la composición de imágenes.

19:45
31/5/2022

MALMKROG

RUMANÍA/SERBIA/SUIZA/SUECIA/BOSNIA Y H./MACEDONIA - 2020 - 200 m.

Dir Cristi Puiu
G Cristi Puiu
Fot Tudor Vladimir Panduru
Int Agathe Bosch, Ugo Broussot, Marina Palii, Diana Sakalauskaité, Frédéric Schulz-Richard, István Teglas

LA ISLA DE LAS MENTIRAS

1921ean, Santa Isabel ontzia hondoratu zen Argentinara zihoala. Salvora uhartean gertatu zen zorigaitza, Arosako itsasadarraren sarreran. 200 lagunetik gora hil ziren, eta 56 bakarrik atera ziren bizirik. Uhartean ez zegoen gizonik, eta hiru neska joan ziren ontzi txiki batean erreskatera, Maria, Josefa eta Cipriana. Gorabehera batzuek neska haien heroismoa zapuztu zuten.

Argentinar kazetari bat, Leon, Salvorara joango da, hondoratzearen berriak emateko. Lekukotasunak nekeziaz jasorik, konturatuko da uharte hartan sekretuak badirela ezkutuan, eta gau hartan "kasualitate" askotxo gertatu zirela.

Gidoi askea trajedia haren gaineko egiazko gertaerak kontatzeko orduan. Aurrekontu txikiko opera prima da, eta emaitza goresgarria. Hiru emakume protagonistena egiten duten aktoreek aintzat hartzeko moduko lana egiten dute, eta haien aurpegiek uharteko bizimodu gogorra islatuko dute: bakardadea, analfabetismoa, meteorologia gaitza, kazikismoa... Giro, argazki eta musika zainduak.

En 1921, el buque Santa Isabel con destino a Argentina naufragó en la isla de Sálvora, en la entrada a la ría de Arosa. Murieron más de 200 personas; solo hubo 56 supervivientes. En la isla no había hombres y fueron tres chicas en una pequeña barca, llamadas María, Josefa y Cipriana quienes se lanzaron al rescate. Algunas circunstancias enturbiaron el heroísmo de aquellas chicas.

Un periodista argentino, León, acude a Sálvora para cubrir la noticia del naufragio. Recopilando testimonios trabajosamente, descubre que en aquella isla hay secretos inconfesables y que en esa noche ocurrieron demasiadas "casualidades".

Un guión libre sobre los hechos reales de la tragedia. Es una ópera prima con un bajo presupuesto y un resultado encomiable. Estimable trabajo de las tres actrices protagonistas, cuyos rostros reflejan la vida dura en el islote: aislamiento, analfabetismo, meteorología inclemente, caciquismo... Cuidada ambientación, fotografía y música.

19:45
7/6/2022

LA ISLA DE LAS MENTIRAS

ESPAÑA/ARGENTINA/PORTUGAL - 2020 - 93 m.

Dir Paula Cons
G Paula Cons, Luis Marías
Fot Aitor Mantxola
Int Nerea Barros, Aitor Luna, Darío Grandinetti, Victoria Teijeiro, Ana Oca, María Costas, Milo Taboada, Celso Bugallo, Machi Salgado, Mela Casal, Leire Berrocal, Javier Tolosa, Sergio Quintana

+ Bilbao hiri ibiltaria, Jon Zurimendi, 2021, 3'. Anim.

Inv Paula Cons. Jon Zurimendi

Sesión en colaboración con Guionistas Vascos / Euskal Gidoigileak-rekin elkarlanean saioa

9 FUGAS

Musika eta irudiak zoragarri nahasten dituen film luze esperimentala. Lehenik musika eratu zen, inprobisazio teknika bat erabiliz, eta orkestra bat erabili hura jotzeko. Bederatzi pieza dira, soinu interesgarrikoak. Kapituluka banatutako irudi sekuentzia bat erabiliko dute haiek biziarazteko; kapitulu bakoitza istorio bat da. Istorioak elkarrekin nahasten dira, eta guztiek dute osotasun oniriko bat.
'9 Fugas' ez da ohiko filma; esperimentua da gehiago, lan artistiko bat, eta hala baloratu beharra dago. Kontua ez da istorioak kontatzea, baizik eta ikuslea belarriz eta begiz estimulatzea, oroitzapenak ekarriz eta beldurra, suspentsea, drama eta egunerokotasuna transmititzen dituzten emozioak pitzaraziz.
Oso originala musika aldetik, ez du mezurik falta.
Gijongo 2020ko zinemaldian, ex-aequo filmik onenaren saria irabazi zuen.

Largometraje experimental que mezcla de forma fascinante el sonido con las imágenes. Se creó primero la música mediante una técnica de improvisación dirigida, tocada por una orquesta. Nueve piezas musicales con sonidos muy interesantes a las que luego se da vida a través de imágenes secuenciales divididas en capítulos; cada capítulo es una historia. Las historias se entrelazan unas con otras y todas ellas tienen un todo onírico.
'9 Fugas' no es un filme común, es más un experimento, una obra artística y así debe valorarse. No busca contar historias sino estimular audiovisualmente al espectador, evocando recuerdos o despertando emociones que transmiten miedo, suspense, drama o cotidianidad.
Un muy original musical no carente de mensaje.
Obtuvo en el Festival de Gijón 2020 el Premio a la mejor película ex-aequo.

19:45
14/6/2022

ESPAÑA - 2020 - 85 m.

Dir Fon Cortizo
G Fon Cortizo
Fot Javier Álvarez
Mus Xavier Bertólo, David Santos
Int María Roja, Olga Cameselle, Lola Quirós, Alfredo Rodríguez, Areta Bolado, Ailén Kendelman, Noelia Castro, Marta Pérez

+ Rotor, Ainara Elgoibar. 2021, 16'. Doc.

Inv Fon Cortizo

NANUK, EL ESQUIMAL
NANOOK OF THE NORTH

Denboraldia amaitzeko, ohi bezala, film mutu bat jarriko dugu, zeinari musika jarriko baitio Josetxo F. de Ortegak. Oraingo honetan, dokumental aurrendaria bere generoan. Inuit familia baten baldintza gogorrak ageri dira, klima baldintza ia jasanezinetan bizi den giza taldea.
Egilea, berriz, Robert J. Flahertyda,esploradorea, antropologoa eta kartografoa bera. 1922an filmatu zuten, baina aurretik egileak eginak zituen sarraldi batzuk eremuan, itsasontzien magnateak esploratzeko agindutа. Pertsonaia horrek berak animatu zuen "asmakizun berria" erabiliz irudizko dokumentu bat egiteko.
Filmaren materiala sute batean galdu ondoren, berriz bilatu zuen finantzabidea Hudson badiara kamera batekin itzultzeko. Han bizi izan zen urtebetez inuitekin
Eta emaitza zoragarri hau 100 urte geroago ikus dezakegu oraindik.

Terminamos nuestra temporada, como es costumbre, con una película muda a la que pondrá música el piano de Josetxo Fdz. De Ortega.
Esta vez un documental pionero en el género. Trata de las duras condiciones de vida de una familia de esquimales en el ártico; un grupo humano que vive en unas condiciones climáticas casi imposibles de soportar.
Su autor, el explorador, antropólogo y cartógrafo Robert J. Flaherty.
Fue rodada en 1922, pero ya antes su autor había hecho incursiones en la zona, para explorarla por encargo de un magnate del ferrocarril. Este mismo personaje le alentó para que obtuviera un documento en imágenes usando "el nuevo invento".
Tras perder el material filmado en un incendio, buscó financiación para volver a la Bahía Hudson cámara en mano. Allí convivió con los esquimales por un año.
El resultado, esta maravilla que contemplamos 100 años después.

19:45
21/6/2022

NANUK, EL ESQUIMAL

EEUU - 1922 - 79 m.

Dir Robert J. Flaherty
G Robert J. Flaherty
Fot Robert J. Flaherty

Inv Josetxo Fernández de Ortega (piano/ música en directo)

Patrocinadores y colaboradores / Babesle eta laguntzaileak

Foro del cine y de la imagen de Bilbao

Centro cívico de Olabeaga - San Nicolás de Olabeaga, 33, 2º piso - Tel.: 944425344 - 618 318 431
info@cineclubfas:com / www.cineclubfas.com / Twitter: @cineclubfas / Facebook: Cineclub Fas / instagram: @faszinekluba
Proyecciones: Salón El Carmen (Plaza Indautxu)